

DOKTORETZA AURREKO LAGUNTZEN DEIALDIA, HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOARENA, 2015

HKKMk edozein arlo zientifikotako doktoretza programetan prestatzeko laguntzak deitu ditu. Horien helburua da onuradunak goi mailako hezkuntzako eta ikerketa zientifikoko Espainiako sistemaren barruan unibertsitate irakasletzan sartzea (FPUrako laguntzak).

Laguntzen ezaugarriak:

850 laguntza deitu dira. Horietatik 17 ezgaitasuna duten ikertzaileentzat gordeko dira, eta gehienez 30 Espainian bizi diren Europar Erkidegotik kanpoko herritarrei emango zaizkie.

Kontratuen ezaugarriak:

Doktoretza aurreko kontratuek gehienez 4 urte iraungo dute (6 urte, ezgaitasuna duten onuradunen kasuan) eta onuradunen eta UPV/EHUren artean egingo dira, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Kontratuak 2016/09/01etik 2016/11/01era bitartean jarriko dira indarrean. Onuradunek hileko 1.173 euro gordin jasoko dituzte hileko 12 ordainketatan eta aparteko bi ordainsaritan.

Eskatzaileentzako eskakizunak:

Lehen fasea:

Lehen fasean, laguntzako gehienez 3 hautagai aukeratuko dira: lehiatzen direneko ANEP arloaren barruan batez besteko nota haztatu hoberena dutenak.

GARRANTZITSUA: Eskaerak aurkezteko epea ixteko datan bete beharko dira jarraian zehazten diren baldintzak.

Eskakizun akademikoak:

- a. UPV/EHUren doktoretza programa batean matrikulatua egotea 2015-2016 ikasturtean.
- b. Hautabidez, master tituluaren jabe izatea edota 2016-2017 ikasturtean doktoretza programa baterako sarbidea emango duen master batean 2015-2016 ikasturtean matrikulatuta egotea egiaztatu beharko da.
- c. ATZERRIKO ESKATZAILEAK BAKARRIK: B2 mailako hizkuntza ziurtagiri baten jabe izatea egiaztatu beharko da (doktoretza zein komunikazio hizkuntzan egin nahi denaren arabera).

Ikasketen amaiera datari buruzkoak:

MUGAEGUNA	IKASKETA MOTA
2012/01/01	Lizentziadunak, ingeniariak, arkitektoak edo horien parekoak EGHERa egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. <i>(*Bi urte zabaldu da ezgaitasuna duten pertsonentzat)</i>
2011/01/01	Diplomadunak, ingeniari teknikoak, arkitekto teknikoak edo horien parekoak EGHERa egokitu gabeko unibertsitate sistemetan. <i>(*Bi urte zabaldu da ezgaitasuna duten pertsonentzat)</i>
2011/01/01	180 kredituko EGHEko gradu ikasketak. <i>(*Bi urte zabaldu da ezgaitasuna duten pertsonentzat)</i>
2012/01/01	240 kredituko EGHEko gradu ikasketak. <i>(*Bi urte zabaldu da ezgaitasuna duten pertsonentzat)</i>
2008/01/01	Medikuntzako, Farmaziako, Biologiako, Kimikako edo Psikologiako titulu ofiziala eta, laguntza eskatzeko unean, Medikuntza espezialitateko titulu ofiziala (MIR) edo Farmaziakoa (FIR) edo Biologia espezialitateko ziurtagiri ofiziala (BIR), Kimiakoa (QUIR) edo Psikologiakoa (PIR).
2008/01/01	Aurreko atalean adierazitako ikasketak egin bitartean, 2008/01/01etik 2012/01/01era arte 6 urtetik beherako seme-alabak zaintzen egon direnak.

Espediente akademikoko batez besteko gutxieneko notari buruzkoak:

Deialdiaren 8. eta 9. artikulua kontsultatzea gomendatzen da. Horietan, titulazio maila eta ezagutza adar bakoitzerako batez besteko gutxieneko nota ezartzen da, berori kalkulatzeko moduz gainera.

Bigarren fasea:

Hautagaiek dokumentazioa aurkezteko epea lehen hautaketa faseari buruzko behin betiko ebazpenean finkatuko da. Bigarren fasean honako hauek baloratuko dira:

- Prestakuntza proiektuaren memoria, egin beharreko doktoretza tesia barne hartuko duena.
- Eskatzailearen CVa.
- Tesiaren zuzendariaren CVa.
- Doktoregaia sartuko deneko talde ikertzailearen azken 5 urteetako historia zientifikoa.

Tesi zuzendarietzako eskakizunak:

- UPV/EHUrekin kontratu lotura izan behar dute eskaera aurkezten dutenetik laguntzak dirauen 4 urteak amaitu arte.
- Zuzendari bakoitzak eskaera bakarra bermatu ahal izango du. Baldintza hori ez betetzeak eskaera guztietatik baztertzea ekarriko du berekin.

GARRANTZITSUA: Proposatutako tesi zuzendariak UPV/EHUko doktoretza programa bateko irakasleen artean egon behar dute. Eskakizun hori ez betetzeak UPV/EHUren eta onuradunaren arteko kontratua formalizatzea galaraz lezake.

Eskaerak aurkezteko epea:

2015eko azaroaren 30etik **abenduaren 22ko 14:00etara arte.**

Eskaera aurkeztea:

Eskatzaileak <https://sede.educacion.gob.es> helbidean "acceso al servicio online" botoiaren bidez sartuta eskuragarri dagoen izena emateko formularioa bete beharko du. Behin eskaera baieztatu ondoren, berori bide telematikoaren bitartez erregistratu behar da. Horretarako, DNI-e agiria, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa edo hitzartutako gakoak erabiliko dira (sinadura elektronikorik ez duten eskatzaileei erregistratzean emango zaizkie gako horiek).

GARRANTZITSUA: MECDren webean eskuragarri dagoen ohiko galderen zerrenda kontsultatzea gomendatzen da: <http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/998758/ficha/2015/2015-preguntas-frecuentes-FPU/preguntas-frecuentes-fpu2015.pdf>

MECDho kontaktua:

Tel.: 91 327 76 81

E-mail: solicitantes.fpu@mecd.es

UPV/EHUko izapidea:

Lehen fase honetan aurkeztutako eskaeretakoko ez da beharrezkoa izango Ikerketaren arloko errektoreordearen onarpena laguntza atxikitzeko ikastegiaren legezko ordezkari gisa.

Informazio gehiago:

<http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/catalogo/general/educacion/998758/ficha/998758-2015.html#ds3>